



# I H A U T E R I A K

HIRU GERTALDITAKO ANTZERKIA,

*P. Larzabal*

## JOKALARIAK:

- *GUARDA (G)*, 55 urte, illargi arpegia, kasik beti irriz mintzo.
- *JENERALA (J)*, 50 urte, idorki mintzo, usu zintzurra karrakatuz.
- *FRAILE (F)*, 40 urte, lehun bainan fermu.
- *KARABINERO (K)*, 30 urte, idor, behakoa zalu eta mesfida.
- *ERTZO (E)*, 45 urte, arpegi gozo, zerutiar.
- *MATRONA (M)*, 45 urte, arpegi gordin eta gaxto.
- *PEXETA (P)*, 55 urte, edozein.

TAULA-GAINA:

*Gure muga huntan gira. Muga bertzaldean, karabinero bere etxolan. Mugaren erdian, gorputz bat zazpi pusketan: Hiru hunaindian, lau haraindian.*

GUARDA.—(*Agertzen da, buruari atzka eta aharrosika. Seinale du moskor-ondo dela.*)

- Edana, lagun ona... Bai segur, ez balu hor biharamuna... Atzo bentzutu nintian bizpairu... Oro espainolak... Bizpairu botoila, Malagako gozotik... Ez mia heien ageririk aduanako paperetan... Ez nintian papereta sartu, bainan klik, nere tripa-kakuan... Berdin, gero ere edatekoak ziren.

*(Betbetan ikusten du Gorputz puskatua)*

- Heu!...Oi-oi-oi!... Zer da hau? Zer gertatzen da hemen! Gizon bat puskatua! Oi-oi-oi!... Hemen zango bat!... Hor, bertze bat... Bat, bi, hiru... Hiru puska, muga hunaindian... Bat, bi, hiru, lau... Lau puska, muga bertzaldean. Oi-oi-oi... Bainan bainan zer, gertatzen da hemen!

*(Karabinero deituz)*

- Errak to, hi, karabinero!... Ho karabinero!

*(Bere buruari mintzo)*

- Nor ote da karabinero mutur beltz hori? BERRI zonbait, oraino ere... Bat geiago... Bertzalde hortan, karabineroak sortzen dituk, onjoak larrazkenean bezenbat. Diotenaz, hor, hiru mutikotarik bat ateratzen omen dut bere amaren sabelatik, ezpainak muztatzekin eta pixtola bat sahetsean... Beharrik horko gobernuarentzat!... Bertzenaz, bakea nola beira?

*(Oihuz)*

- He, karabinero, haugi hunat!

KARABINERO.—Zer da!

G.— Zer den galdetzen duk! Ez duk ikusten hemengo saltsa! Gizon hau, zazpi pusketan! Lau hor eta hiru hemen!

K.— Eta gero!

G.— “Eta gero” diok? Zer uste duk? Puska horiek, kaka pikor batzu direla edo zer?

K.— (*Hotz*)Huna muga... Muga hunek baditu bi eskualde. Zure eskualde hortan manatuko duzu, bainan ez sudurrik sar mugaren hunaindian.

G.— Nungo pittika zuken, to, hire ma, holako birikaren jabe den umea sortzeko?

K.— Zuk errana edo jazko haizea, berdintsu dira neretzat. Ez da nere falta, gorputz puska horiek, mugaren bi eskualdetan balinbadire. Zuk bilzkitzu zureak, nik bilduko ditut nereak.

G.— Zer duk, gorputz bera, bi nazionen artean puskaturik, lurperatu nahi?

K.— Eta gero? zuri eta neri zer zakuu?

G.— Eta, hil hori, hola lurperatu nahi duk, deus inkestarik egin gabe, nola ote den hortaratu?

K.— Hila hil da... Zer behar ditutzu? Puska horiek usaintzen hor utzi? Doatzila pala eta pikotzari.

G.— Urde karabinero basa! Ez duzue segur, lehen aldia, muga huntan, pala eta pikotzaz, zuen krimak tapatzen ditutzuela. Bainan, gaurko huntan, agerian beharko duzue jokate. Hor izanen baigaituk zuen laguntzeko, inkestaren egiten.

K.— Ba ote dakizu zer deramazun?

G.— Ez... Hi, hunat etorri artio egon nauk, nere ofizioa ikasteko. Nork ezarri dik, to, gizon hau, hola, zazpi pusketan? Ez ahal dakik hortaz deus ere?

K.—Galde hori egin-ozute zure eskualdeko jenderi eta ez hemengoeri... Frantses ustelak!

(*Sartzen da bere etxolan*)

G.—(*Bakarrik*) Hail, mutur beltza, hail hire zorrien hazterat!... Bon, eta orai behar dut paperean ezarri, gertatuaz zer dakidan. Horixe da, nik maite ez dudana. Bainan, zer deubrutako, gizon hau etorri da hiltzerat, gisa huntako lekurat!!!...

(*Hartzen ditu lapitz eta papera*)

— Bon, egin dietzogun legezko galdeak...

(*Hilari mintzo*)

— Errak to, nola dituk izen-deiturak? Ha... ez du errepustarik emaiten!... Hala... Zer ote da? Emazte bat edo zer?... Gaurko egunean, denak berdin galtzak soinean dabilta-ta... Erran no, hi, nola ditun izen-deiturak? Mintza-adi, no!... Ala, zer haiz, mutua!... Bon, hago beraz ixilik!... Erradazue orai, nik zer behar dudana izkiriatu paper huntan!... Bai-eta, zer deubrutako jende hau etorri den hiltzerat toki huntarat! Ha, huna matrona heldu!

MATRONA.—(*Agertzen da*).

G.—Erran no, hi, matrona, hire ofizioa baitun jenden biluztekoa, ikusteko ean kontrabandarik gordetzen dutenetz, hiretzat badinat emen lan bat xarmanta!

M.—Zer lan duzu neretzat?

G.—Hurbil-adi eta so egin-zan... Zerria hil-eta bezala dun hemen. Xingarrak alde baterat. Tripak eta burua bertzerat.

M.—Hooo! Zer gertatu da hemen? Jesu-u! Nor da, hola xehakatu den hil gaixo hori!

G.—Nik ez zakinat!... Ez zakinak nor den, ez-eta, urrixa ala orotsa, zer den!

M.—Yes, ez duzu ikusten gizonkia dela?... Gutixago edan izan bazinu, ez zintazke nehiren beharretan, hortaz konturatzeko.

- G.— Hik, zertarik ezagutzen dun, hil hori gizonkia dela eta ez emaztekoa?
- M.— Aski diozu ongi so egitea...? Hori, argi eta garbi seinale da soinean dituen arropetarik!
- G.— Bon, mia zan halere! Ni, ez naun itxurari fidatzen. Lumeroari baizik... Ardia balinbada, ez dinat gero nik marroa dela ezarri nahi nere paperean.
- M.— Aski duzu zehorrek miatzea. Nik, biziak ditut miatzen eta emaztekiak bakarrik. Hori gizonkia da eta hila.
- G.— Bon, jar-adi nahi badun greban, bainan ez adi otoi lotsatua agertu horren miatzeko, gizonkia delakoan. Ez ekin bererik, hire burua, ohoratzen artzea, nere aintzinean. Badakin berdin, nik bazakinatela hi zer haizen.
- M.— Errazu, zuk, nun duzu errespetua! Ez dautzut nik erraiten, sudurra tapa-alako edari usaina duzula!
- G.— Ez dainat nik ere erran, galtzen miatzea maiteago dunala, zaien miatzea baino.
- M.— Zure xuriketak eginizkitzu eta bertzenak berengain utz.
- G.— Bai, konpainia onean sartua naun, no, ni hemen. Alde batetik, matrona-patrona, ondoan hil puskatua, eta bertzaldetik, horxetako mutur beltz hori.
- K.— (*Haserre*) Errazu, hil bat ez bazautzu aski muga huntan, bigarren bat berdin planta dezakegu gero!
- M.— Emotzu bi tiro, emotzu, zikintsu horri!
- G.— Ez nauk batere hir fido... Ofizio hortakoak baitzirezte zuen arropakoak... Errak egia: Zonbait gizon hil izan dituk gaur artio?
- K.— Ez uste izan gero, muga gure artean dela-ta, oro aizu zaizkitzula. Jaungoikoa lekuko, hor izanik ere, berdin-berdina bi tiro botako baidauzkitzut, aski nazkatzen banauzu.

м.—Bota, bota! Noizbait ixil dadila aho zikin hori!

г.—Bazakiat hire Jaungoikoak, jende tirokatzea onhartzen duela eta batzuetan manatzen ere, zerua irabazi nahi duteneri. Bainan, gaizoa, orroit-hadi gurutzada santua bururatua dela. Eta Hitler ala Mussolini, ez ditutzuela geiago hor, zuek zeruan sartzen laguntzeko.

к.—Ez eta zuek Napoleon, zuen larderiaz guri beldurra sartzeko.

г.—Utzak Napoleon, den tokian. Aspaldi duk zizari bazkatzen ari dukala. Agian, gaurko bertze Napoleon batzu, laster joanen dituk haren laguntzerat.

м.—Bai, eta, zu ere heiekin.

к.—Anartean bakean emozu emengo jendeari. Abisu hau emaiten dautzut zure onetan.

*(Sartzen da bere etxolan)*

м.—Ez da goizegi, norbaitek noizbait ahoa hesten baitio.

*(Ateratzen da)*

г.—*(Bakarrik)* Pasori inbido, inbidori hordago, hordagori iduki bainan nere papera beti berdin garbi... Matronak ez eskurik zikindu nahi. Eta mutur beltzak, bere eremuak zaintzen ongi. Bon, hil huni, azken aldikotz, mintza gaiten fermuki: Errazue, zuek, mugaz bertzaldeko puskak, jingo duzue eskualde huntarat, bai ala ez!... Ez duzuenaz geroz ihardesten, hanbat gaxto zuentzat!... Legearen izenean, hemendik aintzinat eta betikotz, izanen zirezte "desertur". Zauzte hor edo zoazte deubruetarat, bainan ez sar Frantzian.

*(Ateratzen da, nazkatua, ez baitaki zer izkiria bere paperean)*

м.—*(Sartuz eta eskualde guzitarat behatuz, urbiltzen da karbinero-ren ganat)*

— Nola hil duzu?

- K.— Bonba bat ezarri diot eskutan, erranez ean paketa ttipi hori eremanen zuen holako lekurat.. Bonba zartatu zaio. Horra hor ondorioa!
- M.— Ainitz diru bazuen sakelan?
- K.— Zituenak kendu diozkat... xo, xo!... Norbait heldu da... Gero eginen ditugu konduak. (*Biak gordetzen dira*)
- FRAILE.—(*Agertzen da, liburu bat irakurtzen duela. Noizbait ikusten du gorputz puskatua. "Aitaren" eginez.*)
- Jesus-Jesu, zer da hau! Jainko ona, urrikal zaite hunen arimaz?... Eta nehor ez hemen!... Zer gertatzen ote da? (*karabinerori mintzo*) Ez zirea ohartu, gorputz bat badela hemen, dena puskatua?
- K.— Ba, fraile-aita, ikusia dut, Aintzindariak abisatuak, ditut... Heien beha nago.
- F.— Zer ote zaio? Auto zonbait, gainetik iragan edo zer?
- K.— Ez dut uste... Gaua zen... Bunbako bat entzun dut... Bereala hurbildu naiz... Eta, gorputz hau aurkitu dut, den bezala.
- F.— Zer gertatu ote da ba? Zer zautzu iduritzen?
- K.— Ez dakit... Iduripena dut terrorixta bat zitakela, bonba bat zekarkena. Eta, nik uste, hemen iragaitean, bonba hori zartatu zaio.
- F.— Ta, nor ote da?
- K.— Ez diozkat sakelak miatu... Aintzindarieri baita inkestaren egitea, gauzak diren bezala nahi ditut utzi, hek etorri artio.
- M.—(*Agertuz*). Zer diozu, fraile-aita, heriotze latz huntaz?... Azkenean, terrorixta horiek, kasik beti, beren burua ondutzen dute.
- F.— Ba, Ebanjelioan errana da: "Ezpata erabiltzen duena, ezpataz hilen dela."



- M.—Egi handia hori!
- F.— Ba, bainan egia denentzat. Mugazaintzat ere ba!... Zereneta, aitor-azu, mugazainen tiroek, hemen gaindi, asko jende badaukatela zauriturik.
- M.— O fraile-aita, gu ez gira gaxtakeriatik bizi, bainan ordrearen alde, lan egitetik.
- F.— Bai bai... Dena da ean zuen ordreak, jendeen arteko maitasuna duen laguntzen edo trabatzen.
- M.— Hil hau bezalako terrorixta batekin, nola nahi duzu, gu, maitasunean sartzea?
- F.— Hori ere nunbait-ko amaren semea da. Jainkoak daki nola den hortaratu.
- M.— Jainkoak ez badu gure ofozioko jenderik nahi, aski ditu jende gaxtoak ontzea!
- F.— Delako terrorixta hunek ez ote lezake, gauza bera erran, bainan aintzin-gibelka: Jainkoak ez badu jende gaxtorik nahi, aski ditu poliz armatuak kentzea.
- G.— Ai-ai-ai... Kasu, fraile-aita, kasu Ebaren alaba horri!...
- M.— Bon, su-pitx hori ginuen emen eskas!
- G.— Orroit zaite zer gertatu zen fruitu debekatuarekin!
- F.— (*Irriz*) Beharrik hor dugu zu bezaleko baten guardia, bide galgarritik beiratzeko!
- M.— Ni banoa hemendik, ez baitut horren ele zozoen entzuteko gutziarik.
- G.— Bazakinak badunala ni baino puttu lehunagorik, bainan zer nahi dun: Denetari bagaitun munduan!
- M.— (*Ateratzen da, sorbaldak alxatuz eta murmurikatuz*) Zozoa!... Zozo andia!...
- F.— Ikusten dudana, galernak izaiten dira zuen lurreko parabisu huntan!

- G.— Bai, liztafina bizi den lurretan, piperrak laster dira gorritzen.
- F.— Nola ez, zu bezalako jorrariarekin!...
- G.— Eta zu, zertarat etorria zira... Piper jorratzerat ala saltsatzerat?
- F.— Ez bat eta ez bertzerat!... Hil hau da nere lantegia.
- G.— Eman diozu holaxet (*gurutze ttipi bat eskuz egiten du*), bertze munduan ongi hartua izaiteko billeta?
- F.— Billeta hori, hil-aintzin ematen da eta ez hil ondoan. Zer gatik ez nauzu deitu, ordu zelarik?
- G.— Eska-zozu hori hortxeko Jainko adoratzaille zintzo-horri!... Horrek dazki holako xehetasunak!
- K.— Frantses perttoli, putz-untzia!
- G.— Horra zer katoliko pizkorra duzun, jaun hori! (*Gurutzearen seinalea egiten du espainol moldean*) Holako simagre zernaki egiten badaki, bainan hil-aintzin, apeza deitu behar dela ez daki (*Irriz*).
- F.— Bon, joana joan da! Bainan, pentsatzen dut ez ditutzuela gorputz-puska hauk hola, elgartu gabe, barreiatuak utziko!
- G.— (*Trufaz, predikuan bezala mintzatuz*).
- Girixtino maiteak, gorputz bat eta haragi bat egiten duzue. Gizonak ez beza berex, Jainkoak elgartu duena!
- K.— To, gaizo apostolua, hori bederen ikasi zuen bere katiximan!
- F.— Ba, hori errana da senar-emaztentzat. Eta hek, gorputz eta haragi bat egin behar badute, bietan behar lukete "bat" egin, hemen diren gorputz beraren puska horiek.
- G.— Gaixo fraile-apeza, hortan arras ados nauzu zurekin! Bainan zure aldeko fededun handi hori, ez da beretik ari. Nola nahi duzu axola ukan dezan gorputz batetik, haragi bat egiteko? Ez eta bitarik "bat" egitea, ez zaio aski... Hirutarik "bat" egitea du bere neurria.

- K.— (*Hasarre*)Mihi zikin ustela!
- G.— Ez hadila samur, gaizoa... Hire kofesioa egiten ari nauk fraile-aitari. Hola, aitormena errexago izanen duk hiretzat!
- F.— Kofesioa, “Bakotxa bere” da gero! Aitor-atzu zureak, bertzenak beren gain utziz.
- G.— Bai, onhartzen dut hori, fraile-aita, bainan nola, jauntto hori, gezurtietan gezurtiena baita, argitu nahi zaitut, ez zaitzan zakuan sar.
- ERTZO.— (*Sartuz, orgatxo bat pusatzen duela, ohartzen da kalapita bat badela... Orgatxo gainean jarririk, jestu asko eginez, kalapitan parte hartzen du. Kalapita mintzen delarik, beldurrez joa, ateratzen da*)
- F.— Eta zuk, noiz egingo duzu zuhaurren kofesioa?
- G.— Ni, girixtino ona naiz. Hortakotz ez noa kofesatzerat.
- F.— Yes, Hauxe jokabide bitxia!
- G.— Ba, ez dira kofesatzerat joaiten mandilgotik bizi direnak. Eta ni, hetarik naiz.
- F.— Nolaz hori?
- G.— Ez ahal dakizu mugazainak direla kontrabandixtarik handienak? Eta, ez ahal dakizu, karabinero sartzeko, behar dela bere arima gobernuari saldu?
- F.— Arima saldu?
- G.— Arima saldu ba! karabinero horrek, zin egina du, bere aintzindarieri obedituko diotela eta hek manatu guziek, on ala tzar, beteko dituela... Beraz, horrek, bere arima saldua du.
- K.— Berea ezin salduz ari da, nehork ez baitio erosi nahi.
- G.— Eta zu, fraile-aita, mesfida zaite alimale hortaz. Gaur, elizarat etortzen zautzu, jaun handi, Jainkoa adoratzerat. Gobernuak hola manatzen dio-ta... Bainan, gobernu aldada da, eta bihar, elizarat etorriko zautzu, berdin-berdina, aldarea tirokatzerat.

- K.— Asto tirokatzeko manua ukan baneza, banakike nortarik lot!
- G.— Berak aitortzen du, fraile-aita... Horrentzat, jendeak dira asto batzu. Eta, ni hilen ninduken bezala, berdin hil lezake bere andrea... Eta hura bietan
- E.— (*Solasak aintzinat doatzila, ateratzen da*)
- K.— (*Errabian*) Zerri Ustela! Holakoeri, nik, bi bala... bi bala.
- F.— Otoi, jaunak!...
- G.— Karabineroen ofizioa, fraile-aita, bekatu untzi bat da. Untzi hortan, saltsa-multsan bizi dira karabineroak eta munduko satan guziak.
- F.— Orroit zaitte, bat ala bertzea, tupin bereko saltsaki zireztela.
- G.— Ez, nere tupinak ez du, horrenak bezain usain gaxtoa. Eta nik, nere itzalak aitortzen ditut... Horrek ez. Hori da zuriko.. Ez dut gero erran: zuria. Zeren-eta, horren azala zuria balinbada, horren barnea, ximiniko keldarra bezain beltza baita.
- F.— Ez ote duzu, zure buruaz, kukuruku gorasko jotzen! Gure Jainkoak ez ditu gero maite haga gaineko oilarrak!
- G.— Ez dakit ni haga gaineko oilarra naizen, bainan banakike erraiten zer den zure eskualdeko karabinero hori!
- F.— Zer dela diozu ba!
- G.— Karabinero hori eta bere iduriko guziak dira: Hitlerren burugainean azitako zorri batzu.
- K.— (*Errabian*) Bota, bota beti pozoina!
- F.— Ez zirea beldur, holako solasek ukan dezaketen ondorio gaxtoez?
- G.— Ni beldur? Noren beldur?
- F.— Ez dakit, bainan, hola ari bazira, karabineroak ere, noiz bait oldart ditazke gero!...
- K.— Ongi egiten duzu, fraile-aita, aho-zikin horren abisatzea.

- G.— Zer uste duk? Frantses guardak, Espainol karabineroen beldur girela. Atozte nahi duzuelarik. Horien kasatzeko, fraile-aita, gibel-aldeak aski ditugu. Guk, purrut-purrut egin eta, erbiak bezala joanen dira denak ihesi.
- K.— (*Arma altxatuz, errotua*) Aski delarik, aski da gero! Ikusiko dugu nor joanen den ihesi.
- F.— (*Karabinero-ren armari lotuz*) Ez. Holakorik ez!... Eta zu, guarda, zoazi hemendik...
- G.— Ba, banoa... Ez, horren beldurrez.. Bainan zintzurra ahortzen hasia dutalakotz. (*Ateratzen da, bainan seinale du beldur dela*)
- K.— Doala eta, bere onetan, ez dadiela gehiago hunarat agert.
- F.— Ha, eta gurputz puskatu hau beti hemen !... Hauk, ez ditazke hola utz.
- K.— Errana dautzut, fraile-aita, aintzindarien beha nagola, horietaz zer egin jakiteko.
- F.— Bon, banoa, heien pixka bat mugiarazterat (*Ateratzen da*).
- K.— (*Bakarrik. Bere etxolarat doa*).
- ERTZO.— (*Agertzen da, bere orgatxoekin - Haukien gainean dakarzki pala bat eta iduzki-onbrela bat*)

Ha bon!... Denak joan dira!... Hobe!.. Hola lanean hartzen ahalko naiz deskantsuan. Nik ez dezaket lanik egin, jendea kalapitan ari den lekuan. (*Goiti so egiten du*) Aro txarra, aro txarra, jende maiteak! (*Onbrela idekirik, jartzen da orgatxoekin gainean*). Parasol hau idekitzen dut, ez bustitzeko... Zuek ere, beharrik hor baituzue teilatua, buruen gainean... Ba, Parisetik heldu naiz... Jaun presidentarekin mintzaturik. Pompidou ba !... Ostatu ttipi batean nintzen. Ta, Pompidou-ri telefona kolpe bat eman nion, etor zadien, arroltze eta xingar nerekin jaterat. Ete, jin zen gizona... Ta, lastersko ale... Gormanta baita... Mintzatu ginen buruz-buru, Europa berri bat muntatzeaz. Nere laguntza baitezpada behar zuela, erran zautan. Lanez itoa izana

gatik, baietz ba, lagunduko nuela, hitzeman nion. Zeren-eta, presidenten artean ez badugu elgar laguntzen, populuak iretsiko gaitu... Ha, beharbada, ez nauzue denek ezagutzen Xuxen da. Batzuek nahiago dute politikan ez sartu... Ez baita laket bustitzea... Ni naiz, hemengo xoro, burtxoro eta erro guzien presidentea. Eta, president legezkoa gero. Bozak emanez hautatua. Beraz, nere kargua da, nere balioaren saria. Eta ez dut hori zor nehor. Hortakotz, ez naiz ni nehoen xakur edo esku-makil... Bada ainitz hemen gaindi, ez baitezakete bertze hainbertze erran, beren buruentzat.

PEXETA.—(*Agertuz, Espainiako aldetik*)

— *Errazu, Ertzo, noiz pagatuko dautazu, zor dautazuna?*

E.— Andre Pexeta, nik ez dut zorrik zure etxean. Beraz, zoazi zure zerbitzuen zaintzerat eta, utz-nezazu ni bakean!

P.— Zu, atzo, nik zaintzen ditudan komunetan, sartu zinen. Eta gero, ihesi joan, hortakotz zor zinuen pexeta, neri pagatu gabe.

E.— Ba, egia da, zerbitzutan sartu nintzen. Bainan, deus ez nuen egin barne hartan. Beraz ez nintzen zurekin zorretan.

P.— Bai jauna. Komunetan sartu zinen eta beraz sar-paga zor dautazu.

E.— Paga-saria zor da, komunak zikintzen badira edo hango ura xahutzen bada. Nik ez nuen deus holakorik egin... Ez naiz ni aski eroa, zor ez dutanaren ordaintzeko.

P.— Ez badautazu ordaintzen lehenbailen, zor duzun pezeta, dei eginen diot polizari (*Ateratzen da*)

E.— Dei egizu, nahi baduzu, polizari, gobernadoreari, minixtroari edo debru-zaharrari. Bainan, ez duzu, nere sakelatik, pilik ukanen !... Pexeta “pixinta” zu !...

(*Hilari so dagola*)

— Horren begiak, neri so dagozi... Piztuko haiz, gaizoa, piztuko... Hor nauk ni... Bon, lot gaiten lanera !Hementxet behar dut lurra

itzuli eta, gorputz puska horiek, behar ditut landatu. Horien inguruan sartuko ditut zernahi lore mota: xuri, gorri, ferde... Bon, goazen lanera! (*Lotzen da tiraala, lur itzultzen bezala, bainan laster gelditzen da*) Lana, gauza sanoa da osagarriarentzat... Nik, ez banu lanik egiten errotzea segur nuke. (*Berritz lan eginik, gelditzen da*) Ahatik, beti buruz ari behar da lanean (*Izerdia xukatuz*) Indarrak eta ahalak neurtuz... Hori ez zakiten lehengo zaharrek. Gaur, holako zernahi gauza berri ikasten da. (*Hilaren beso bat hartuz*). Hunako beso hau, landatuko dut hementxet. Hum, beso indartsua !... Agian ongi pusatuko du !... Holako batzuen beharra badugu, panpako on batzuen zombaiti emaiteko.

K.— (*Agertuz*) Errak, Ertzo, Zer ari haiz hor?

E.— Zer arinaizen? aski duzu so egitea... Lore eta gorputz-puska landatzen.

K.— Muga-bide erdi-erdian?

E.— Beharko, muga kentzekotan.

K.— Ta, zer egingo duk hemen? Nun haizela uste duk?

E.— Muga huntako haga kenduko dut, jendea ibil dadien harat eta hunat, deus trabarik gabe. Mugako eremu hautan denetan, landatuko ditut gorputz puska eta loreak. Han hemenka ezarriko ditut jar-leku batzu, jendea pausatzeko.

K.— Eta, gure guardiako etxoletarik, zer egingo duk?

E.— Ez kexa. Bakotxak ukanen du bere baliamera. Bat, beteko dut lore-untziz, bertzea arrain gorritz, bertzea izanen da haurren jostaleku eta hola, denetan ezarrik ditut gauza pollit-atsegingarri batzu.

K.— Eta gu,zer bilakatuko gaituk?

E.— Ez zautet ahantzi. Ez zirezte izanen, orai artio bezala, denetaz bigunduak eta gaizki ikusiak. Zuen buruko kasola itxusi horien orde, ukanen ditutzue baratzezainen xapel pollit batzu. Eta, armen orde, eskutan ibiliko ditutzue lur laneko tresnak.

K.— Arras eroa...

E.— Ez ote gintazke hola merkeago aterako, alferrak lanean emanetz!

K.— Arras eroa !...

E.— Eta, muga hau kenduz, ez ote diotegu deneri zerbitzu eginen, mila nardamendu izaiten baitira hunen trebesatzeko?...

K.— Arras eroa!...

E.— Ilargirat joaiteko, paperik ez daukute eskatzen; bainan ba, auzorat, gure etxekoetarat joaiteko... Ha gizona, gizona... arras eroa!

## O I H A L A

### —BIGARREN GERTALDIA.—

#### TAULA-GAINA:

*Aintzineko bera... Alde Batetik Fraile, bertzetik Guarda ari dira, bakotxa bere saskirat, gorputz pusken biltzen.*

GUARDA.— Nago, fraile-apeza, zergatik zuek, Elizgizonek, hola ohoraten dituzuen hilen gorputzak eta, hain guti, bizi direnenak.

FRAILE.— Gorputz bizi ala hilari, berdin errespetu zor zaio. Biziari, arimaren laguna izan delakotz eta hari berritz josiko, mundu hau kraskatuko delarik.

G.— Hil hau ikusi duzularik, zure bihotza urtu da eta bereala joan zira, alkatearen edo polizburuen edo nik ez dakit noren ganat, heuri eskatzerat huntaz arta har dezaten.



- F.— Eta gero!
- G.— Hil hau, bizi izan balitz eta zure beharretan, hoinbertze mugituko ote zinen hunen alde?
- F.— Zer gatik ez?
- G.— Uste duzia, egun batez, haragi puska hauk, xingar bizi dila berritz bilakatuko?
- F.— Gure sinestea da hori. Hazi usteldutik landarea bezala gorputz usteldutik, bizi berri bat dela aterako.
- G.— Hau baita mutil baten gorputza, izanen dea, zeruan, hunentzat, neskatzik.
- F.— Zeruan ez da, ez mutil eta ez neskatzik. Han izanen gira denak berdin, aingeruen iduriko.
- G.— (*Irriz*)Ikusten nauzu ni, aingeru bilakatua?... Egia aitortuko dautzut. Zeruan ez bada, ez neskatzik eta ez zurrutako molderik, berdin zaut neri zerurat edo deubruetarat joan.
- F.— Zerua, pixka bat konprenitzeko eta haren gutizia ukaiteko, beharrezkoa da, pottoka eta mandoek baino goraxago, bere izpirituaren alatzea.
- G.— Milesker ez bainauzu halere astoekin parekatu! Dena den, zure ikusbidea da, tripa gainean badugula marra bat. Marra horren peko gorputz parteak, deus ez duela balio. Marra hortarik gorago diren bihotz burutan dela, gizonaren balio guzia.
- F.— Ez dut nik holako xorakeririk atera. Gure gorputz-puska guziek, balio bera dute. Denak dira eginak, baktxaren zerbitzuko. Bainan, gorputza ez da gizonaren helburua. Arimaren sustraia baizik.
- G.— Arima eta arima, ez duzue bertze solasik. Gorputza ere hor dela kontura zaitzete! Nik, aita saindua banintz, fraile eta seror guziak ezkontaraz netzazke.

- F.— Bai, eta nik, aita saindua banintz, egun guziz, otoitz bat erranaraz nezokete, Jainkoak beira ditzan ezkonduen purgatoriotik.
- G.— Mutur beltza heldu zauku. Ni banoa hemendik. Hori, bi purgatoriotan sartua baita, ni baino maxtro hobea ukanen duzu, auzi hunen xuritzeko. (*Jalitzen da*).
- K.— (*Agertuz*) Ez zaitu bederen sobera nardatu bere ahopaldiekin?
- F.— Ez... Batzuetan sobrakinak jalitzen ditu. Bainan, sobrakinatik neurria egitea errexago da, eskasiatik baino. Bon, ni ere banoa eta saski hau, zure gomendio! (*Jalitzen da*).
- K.— Ongi da (*Apur bat bakarrik*)
- M.— (*Agertuz*) Errazu, noiz egin behar ditugu gure kontuak?
- K.— Zer kontu?
- M.— “Zer kontu”, diozu? Trufatzen zirea nitaz? Haragia saskitan dela ikusten dut, bainan nun duzu horrentzat niri hitzeman saria?
- K.— Zure hitzeman saria?
- M.— Ez ahal duzu ukatuko, gorputz hortan zen dirua, nerekin erdizkatzea, hitzeman zinautala?
- K.— Nik hitzeman dautzutena da bakarrik: Zuri sari zerbait ematea. Bertzerik ez.
- M.— Eta, jakin dezaket zer emanen dautazun?
- K.— Bazkari baten saria zuri emanez geroz, ni kito naiz zurekin.
- M.— (*Oihuz*) Errak to, ustel zikina hi, zer uste duk! Eskale bati bezala, niri bi sos aurtiki-ta, eskuak garbi ateratzea ateka huntarik?
- K.— Ai-zu, zonbat diru, uste duzu, berekin zuela gizon hunek?
- M.— Hik nahi dukana. Nor deitu duk diru horren kontatzerat?
- K.— Zer parte hartu duzu, zuk, lan huntan, sariaren erdia zuretzat eskatzeko?

- M.—Errak to, nork salatu dauk, gizon hori, salmenta bat eginik, diruz kargatua heldu zela? Nork mozkortu dik frantses guarda, gertakizun huntan, lekukorik ez dadien izan?
- K.—Eta baduzu kopeta, zure egintza koxkor horientzat, diruaren erdia eskatzeko?
- M.—Orroit-adi sekretua erdizka diagula.
- K.—Zu ere, orroit zaite, sekretu hori saltzen baduzu, ondorioak berdin erdizka ukanen ditugula!
- M.—Ez, ez nauk aski xoroa izanen, hemen gertatu dena salatzeke, bainan hire andreari ziozkat bi hitz erranen, bere senarra norekin dabilan, begiak idek ditzan.
- K.—Holako zikin berdurutzen lotzen bazira, ez naiz gero, ni ere ixilik egonen. Alpaldi du, denek hemen zilatuak ditugula, gure jeneral zahar horrekin, dabilzkatzun oilokeriak!
- M.—(*Hasarre gorrian*)- Ni? Ni, zuen jeneral horren oilanda (*hartzen du saskitik, gorputz puska bat*). Errak berritz, errak bietan!
- K.—(*Hunek ere, bere saskitik, gorputz puska bat hartzen du*). Ez dut erran oilanda, bainan oiloa. Zu bezalako atsoak, ez ahal du, oraino gazte delako ilusimendurik! (*Elgari joka lotzen dira, gorputz puskak hortakotz baliatuz*)
- M.—Faltsu ustel zikina, hi! Zorritz betea! Espainol usaindua!
- G.—(*Sartzen da, elgarri joka ari direlarik eta berexten dituela*) Hep, hep! Ezti zaizte, otoi, ezti, zuek, jende pare gisakoak. Zer ditutzue molde horiek? Gorputz puska horiek utzkitzue beren saskitan! Ala zer? Ez ote zautzue aski, puska horien artean, muga bat izan dadien? Horren gainerat puska horiek, elgarri zarpaka nahi dituzte har-arazi? Zoin ifernuko deubruen umeak zirezte zuek?
- BIEK.—(*Gorputz puskak, berritz saskitan ezartzen dituzte*).
- M.—(*Errabian*)- Ba, guarda, jakin-azu eta deneri errozute, gizon hunen hiltzalea, hori dela !... Ba, zure aintzineko zerri ustel hori!

Horrek du, iragan gabea, gizon hau hil, hunen diruaz jabetzeko. (*Ateratzen da*)

K.— (*Errotua*) Gezurtia ! Gezurti errabiatua, zu ! Jakin-azu holako solasen saria direla: Bi bala buru-hezurrean. Zoazi, zoazi lehenbailen, zure jeneral zaharraren ganat ! (*Ateratzen da*)

G.— (*Bakarrik. Irriz popularia*).- Errana den bezala. Artzainak samur eta gasnak agert ! Orai badakizue zoin errespetuzko jendeak dituzuen, muga hunen zaindari ! Ahatik, ez hunarat abia zombait pinta edariz kargaturik ! Konprenituko baituzue orduan, guretzat ez bada errespeturik, zuentzat badela gero ! Ta, huna nun heldu zaukun delako jeneral zaharra... Aditu behar ditu bereak eta asto beltxarenak!

JENERALA.—(*Agertzen da. Karabinerok, arma presentatzen dio... Gero ere, zangoak tinkatuz da, aldi guziz, jeneralari mintzatzen.*).  
Bon, hau da beraz delako gorputza ! Terrorixta...terrorixta... Mugarik nahi ez duen gizona, mugak du garbitu... Ongi egina... Dagola hor zazpi pusketan.

K.— Ba, berekin zeraman bonba bat zaio zartatu, hemen iragaitean!...

J.— Ez zuen bertzerik merezi !... Ongi egina... Muga hau da sakratua!... Sakratua delakotz, bere bizkarraren gainean ez du jasan ahal izan, ustel karga hori. Hor berean porroskatu du... Ongi egina!... Horrek bezala, denek ikas bezate zer den Espainia! (*Oihuz, laster aldizkatuz eta, aldi bakotx, besoa luzatuz*). España una!

K.— Una!

J.— España grande!

K.— Grande!

J.— España libre!

K.— Libre!

J.— Arriba España!

K.— Arriba!

- G.— (*Irri-trufaz mintzo*) Errak to, hi jenerala, zonbat soldado dituk hire meneko? Zeren-eta, zuek, Espainia hortan, hiru soldadontzat omen baituzue jeneral bat!
- J.— (*Saskia husturik, inkesta-neurrian hartzen ari dela*)- Frantzi galdua! Anarkixta, terrorixta, eta ustelkeri guziak sortzen eta hazten dituen lurra!
- G.— Ba, eta diotenaz, jeneral bakotzak, zango bat balinbadik armadan, bertzea omen dik banko, komertzio edo induztri andi batean. Ezpataz, moltsa hemendik zaintzen moltsa ezpataz eta, biak elgartuz, eliz-alderetako Jainkoa.
- J.— Holako gizon arrazak, puñalaz behar likek garbitu -puñalaz ez bada, tiroz - tiroz ez bada, napalmaz, -napalmaz ez bada, bonba atomikaz.
- G.— Ez adila hola asalda, gaizoa. Berdin, goiz edo berant, denak hilen gaituk. Bai hi eta bai ni. Pala eta pikotzak elgartuko gaitik.
- J.— Ordrea... Ordrea da eskas mundu huntan... Hortako ehunetik ogoi fuzilatzea aski litake eta gaineratekoekin bakea ginuke.
- G.— Bai, bai, hola hire mundua lukek porru-landa bat, hongierrokatua. Hik, hire burua, porrutzeat hartzea, paso !... Bainan, dena duk, ean hire mailerat jautsi nahiko duten ber'tze gizonak.
- J.— Ni porrua ! Ni porrua ! Tiro bat, bi tiro, lau merezi ditu hola mintzo den gizonak. Karabinero, atxik zure arma prest!...
- G.— He emeki, emeki !... Muga hor duk gero eta ihaurrek errana duk muga dela sakratua.
- J.— Ha, nere ohorea !... Horra zer behar nuen entzun, adin huntan behazozu nere bular-gainari ! Beha hor diren medaila lerroari! Ez zirea lotsa hola mintzatzeko, zu, armetako gizona, armadako aintzindari bati !
- G.— Ha zera... medailak ! Ha ba, zonbat dituk !
- J.— Bortz hemen dauzkatzu, begien aintzinean. Eta jakin-azu, bertze zazpi baditudak etxean.

- G.— Bortz eta zazpi amabi. Nik jakin nikena duk, horiek guziak, nola irabaziak ditukan !
- J.— Nola irabaziak? Nere odolaz, nere zauriez, nere zerbitzuez! So egizu medaila huni! Hau irabazi nuen: Pro merito de Caballeria. Horrengatik dauka, gainean, zaldi buru hori.
- G.— Nola erran duk: Pro mérito de Caballeria?
- J.— Bai, horixe bera. Zeren-eta nik bainuen erreberritu, Tudelan, armadako zaldien arraza guzia.
- G.— Hik?
- J.— Nik ba, nik!
- G.— Nolaz hori?
- J.— Nik nuen, garaño esperientziari esker.
- G.— Ha!
- J.— Ba, jakin-azu, nere aitatxiren denboratik gaur arteraino, gure etxean, izan direla Naparroko garaño hoberenak.
- G.— Beraz, ezin ukatua, ongi merezitua dukala garaño medaila hori!
- J.— Eta, bertze medaila huntan, irakurtzen ahal duzu: “Salvador de España. Todo por la Patria...” Erran nahi baita. “Espainiaren salbatzailea. Oro Aberriarentzat.” Hau irabazi nuen, Aleman eta italianoekin gudukan ariz.
- G.— Noren kontra?
- J.— Espainol gorrien kontra.
- G.— Ba, lan garbia egin huen !... Eta zer duk hortako medaila gurutzadun hori?
- J.— Hori ukana dut: Jesu Kristo, salbaturik... “Por merito de Santo Kristo del Cielo.”
- G.— Yes, nik uste niken, Jesusek, gu gintikela salbatu eta ez guk hura! Nola irabazi huen medaila hori?
- J.— Hori, Marokanoekin gudukatuz...

- G.— Beraz, Afrikako musulmanoen konbertitzeko!
- J.— Ez, bainan heiekin gerla egin nuen, Español girixtino gaxtoen konbertitzeko.
- G.— Ta, armez tirokatuz, girixtino gorri ainitz, xuritu duka?
- J.— Frantxes gorri ustela, zu !... Karabinero, bi bala prest atxik, bi bala !
- G.— Ez, gaizo jenerala... Ez dut hau, tiroka artzeko sasoina. Gerla bururatua duk eta ihizia, ez oraino idekia. Bertzalde, hau ere jakin-tzak: Ez haiz, hemen, medaildun bakararra. Nik ere, hiru irabazi nintian.
- J.— Zuk hiru medaila? Zoin eta zer gatik?
- G.— Hiru medaila ba: Bat “médaille des Anciens Combattants”-gerla egin diatalakotz... Obedi edo hil zuken legea, ta... ez hiltzekotz, obeditu behar.
- Bertze medaila diat: “Médaille des blessés de la guerre”. Ixterra, bala batez trebesatua izan nian. Ez zakiat hortan zer merezimendu diaten. Bala, nik eskatu gabe, etorri huen eta, nik nahi ala ez, nere izterrean sartu.
- Eta, hirugarren medaila diat: “Médaille des prisonniers”. Etsaiak, lurrean kolpatua, bildu nindiken. Nik ez nion bertzerik galdatzen.
- J.— Ba, bainan aitor-zazu zure medailak ez ditazkela nereekin konpara: Ez nonbrez, ez eta ere merezimenduz.
- G.— Ba, hiru medaileri, hamabi nausi dituk... Eta bertzalde, hik badituk, nik ez ditiaten merezimendu batzu, garaño, Jesu-Kristo eta Musulmanen hartu-emanetan sartua ibili haizelakotz. Bainan, halere, gauza bat behar dautak onhartu... Pisurat, nere medailak, hirek baino balio gehiago ditekela...
- J.— Pisurat?... Nere ala bi medailek, kilo batez gorago pisu dute. Ez ahal dute holako pisurik zure hiru medailek!

- G.— Ez, eta hortakotz ditek, hire medailek baino balio handiagoa. Ala bainan, gauza bat baduk ongi ezagutua: Medailek, zerbait balio ditek, berrehun grama azpiz pisu ditekelarik... Berrehun gramatik kiloraino, arras guti edo deus ez ditek balio... Kilotik gorago, ebatsiak izaiten dituk.
- J.— Karabinero, Karga zazu zure arma... Holako solasik, ez dezaket jasan !...
- G.— Tiroka lotu aintzin, utz nezak bertze zerbait erraiterat. Zonbatez aintzindaria baituk galondunago, eta hanbatez, harek ukaiten duen medailak, dik balio gutiago.
- J.— Nun duzu adimendua hola mintzatzeko? Ez ahal du, kargu handiagoa duenak, irrisku gehiago hartzen?
- G.— Irriskua bai! Ni, lehen lerrotako zilotan nindukalarik, eguneko hogoi sos pagatua, nere jenerala, han zuken nunbait gibelean urrun, ongi pagatua eta aterbe onean aloitua.
- J.— Ba, bainan gerla galtzen bada, nork du gehiago pekatzen?
- G.— Gerla galdua edo irabazia, nere jenerala, ni baino hobeki aterako zela, ez zakela ukan dudarik. Gerla galtzaile bakarrak dituk, han gelditu diren hilak, eta ere, betikotz errezelatuak etxerat itzuli direnak.
- J.— Gerlari-ohi bizien errespeturik ez baduzu, bederen hilena izan-azu...
- G.— Hik, ohoratzen ahal dituk gerlako hilak? Hirekin zirenak, bai, bainan hire kontra zirenak? Munduko legea dut, irabazleri zernahi ohore emaita. Galtzaileak aldiz, nehork ez ditik aipatzen ere, despresetzeko baizik.
- J.— Karabinero, arma! Prepara zure arma!
- G.— Errak to, hi jenerala, bertze hire iduriko hainizek bezala, uste dut hik ere, gerlan bildu galon eta medaila horiek, emaiten dauztuetela, bakea gobernatzeko eskubidea eta gaitasuna. Bi ofizio arras desberdinak dituk gero soldadoen manatzea eta zibilen gobernatzea.



- J.— Karabinero, bota tiro, bota... Garbi gizon hori!
- G.— (*Tira-ala gorderik, mintzo da oihal gibeletik*)- Zonbat gizon hilarazi dituk, to, hire galon horien irabazteko?
- K.— (*Ez du tirorik botatzen*)
- J.— (*Errabian*)- Armada oso bat baino lanjerosago da holako gizon bakar bat.. Terrorixta hil hunen bonba, fisik ez da, fisik, horrek gogo biotzetan sartzen duen pozoinaren aldean !... (*Eztituz eta fermuki mintzo*) Errazu, karabinero!
- K.— Zer da, jeneral jauna!
- J.— Ahantz zatzu guarda zirtzil horren solasak. Eta, orai artino bezala, jarraik zaite zintzoki, zure soldado eta gizon eginbideri!
- K.— Bai, jeneral jauna!
- J.— Mugen zaintzeko, armadak beti izan dira eta izanen dira. Armadak dira sakratuak !...
- K.— Bai, jeneral jauna!
- J.— Bon, ongi da... Eta, terrorixta huntaz behar dena egin duzulakotz, ukanen duzu saria. Medaila bat eskatua dut zuretzat.
- K.— Milesker, jeneral jauna!
- J.— Hil hunen inkesta bururatu-eta, berritz etorriko naiz. Eta, orduan, hemen berean egingen dugu, zu ohoratzeko zeremonia.
- K.— Ongi da, jeneral jauna!
- J.— Beraz, laster artio (*Jalitzen da*)
- K.— (*Bakarrik... Bere buruaz irriz, sakelatik diru pieza handi bat jalitzen du eta medailen lekuan entzeiatzen bezala gero ateratzen da*).
- ERTZO.— (*Sartzen da bere orgatxoarekin, alegeraki adiaraziz abertzale kantu bat*).

*Bat, bi, hiru, lau (Bis)*

*Bortz, sei, zazpi (Bis)*

Euskotarrek irabazi.

— Nere ametsa azkenean bururatu da... Berria zabaldu da... Muga hau kentzen dutela... Tralala, tralala... Gerlabide bat gutiago. Hola bederen bizitzen ahalko gira, denak anai bezala eta bakotxa gurearen jabe. Tralala... Tralala... Bon, behar ditut bereala zilo batzu egin eta lore batzu landatu. (*Lanean ariz*) Xorientzat, mugarik ez da... Lanoentzat ere ez... Lurreko ihizientzat ere ez... itsasoko arraintzat ere ez... Zergatik beraz gizontzat?... Tralala, tralala... Laster, muga-leku idor hau ikusiko duzue denen biltoki goxo bat bilakatua.

MATRONA.—Zer ari haiz hor, Ertzo?

E.— Lore landatzen, baratze bat muntatzeko.

M.—Zer uste duk? Mugazainek onhartuko dutela, hik bide hau hola xahutzea?

E.— Ha, ez zinakien?... Ez da geiago mugarik! Denen kentzerat doazi

M.—Nork sartu dauk ziri hori, to?

E.— Berria zabaldua da. Besta handi bat apailatzekoa dute hemen berean. Izanen dira dantzak, kantuak, supanpak, den-denak. Ordutik harat, joaiten ahalko zira mugaz bestalderat, deus paperik gabe... Eta hango jenerala, zu harat bezala, berdin hunarat jiten ahalko da.

M.—(*Kexu*)- Errak to, hi erroa, bahakika zer diokan?

E.— Jeneralak, bihotz zabala du. Eta, zu ez bazira kontent, segur naiz hura hala izanen dela!

M.—Hago ixilik edo ukanen dituk gero bi zaflako.

E.— Utz- atzu bazterrerat gaxtakeriak... Zure bihotza goxa dadiela. Muga hau kenduz geroz, zuk ere, traba gutiago ukanen duzu amodiozki bizitzeko!

M.—(*Bi zaflako emanaz*)- To-tzik bi berogailu, hire amodioa goxatzeko, erro paper-egile faltsoa hi... Eta, ez bahaiz hortik laster aldatzen, ukanen duk laster bertzenik ere (*Jalitzen da*).

- E.— Hee !... Nik zer egin dautzut zuri, zuk ni hola jotzeko !...  
(*Bakarrik*) Zer mila sorgin iragan zaio burutik emazte horri,  
hola sutan jartzeko? Ala, amodio garbia ez ote du maite? Nik  
ez dezaket ba bertzerik eskaint!
- GUARDA.—(*Agertuz*) Lan gaitzean ari haiz to, Ertzo!
- E.— Ba, zilo egiten ari naiz, loren landatzeko.
- G.— Ongi eginen hiekek, zilo horietan bertan sartzen baliatu, saskitan  
diren gorputz puska horiek!
- E.— Ba, xede hori bera dut. Zeren-eta, gorputz hori ez da hila. Beti  
bizi da eta, pixka bat tratatuz geroz, emanen du fuitu.
- G.— Guk ere lehenago, zerri hiltzetan, zerri buztana baratzean  
landatzen ginian. Handik etortzen hintuen gero zerri kumeak.
- E.— Ha, nik ez dakizkat, zuk bezenbat zerri aferak. Bainan, beti  
entzun dut, ainitz gizonak, lur-petik lan gehiago egiten dutela,  
lurraren gainean bizi zirelarik baino.
- G.— Bazukek hori ere, Ertzo. Ahatik, lanean gaizki ari haiz. Mugaren  
bi eskualdeak nahi badituk elgartu, bidea behar duk zilatu, ez  
bakarrik bertzetik ere. Eskualde huntarik, bainan
- E.— Xede hori bera dut, nik ere eta bereala banoa bertzalderat (*Bere  
orgatxoekin muga trebesaturik, lotzen da lur zilaturen*)
- G.— (*Irriz ari so dago.*)
- JENERALA.—(*Agertuz*) Hep, hep, hep !... Zer ari zire hor, gizona !.
- E.— Yes, ez duzu ikusten zilo egiten ari naizela!
- J.— Zilo egiten?...
- E.— Ba, muga hau hemendik kentzeko!
- J.— Heee?... Beraz, bonba ezartzeko! (*Harzen du lepotik*)...  
Terrorixta !... Terrorixta !... Karabinero, hel hel laster!... (*Er-  
tzok ere jenerala hartzen du lepotik*)

KARABINERO.—(*Heldu da*)

J.— Bota gateak!... Gateak esku muturretan!...

K.— (*Obeditzen du*)

J.— (*Hats hantua*)- Ha, ha!... Terrorixt bandidoa !... Preso !...Doala laster preso !... Kasu... Begiak idek!... Beharbada lagunak baditu! (*karabinero aintzinean, Jenerala gibeletik pusaka, Ertzo joaiten dute*)

G.— (*Bakarrik gelditzen da, irriz usteldua*)

## O I H A L A

### .—HIRUGARREN GERTALDIA.—

#### TAULA-GAINA:

*Aintzineko bera... Gorputz pusakak, bi metetan dira, taula gain bazterrean. Saskiak hutsak. Karabinero seinale da bere etxolan.*

JENERALA.—(*Sartuz, urrats idor batean.*) -Bai, bai, egun ditugu malobrak !... Malobra andiak !... Nahaskeri gehiegi gertatzen da muga huntan !... Hemen behar dugu ezarri ordrea, ordrea... Gaxtoak ken !... Onak bakarrik bizirik utzi ! Zikinkeriak garbi, garbi! Hortakotz etorria naiz hunarat.. Gobernuak igortzen nau hemengo gorabeheren jujatzerat.

GUARDA.—To, hor haiz, gaizoa ! Zer duk, to, hoin kexu izaiteko?

- J.— Jakin-zazu, ez naizela batere irrigura. Eta ere, gaur hemen irri egin nahi lukenari, sartuko diozkatela nik bere irriak.
- G.— Zer gertazten zaik ba, gaizoa? Zer ukan duk: Etxean su? Edo, zer hau, andreak etxetik kanpo ezarri?
- J.— (*Hasarre*)- Zu, zure onetan, ez zaintela sekulan sar mugaz hunaindirat. Ez baitzinuke gehiago horrat izultzerik.
- G.— Bazakiak, bazakiak hori, hik bietan erran gabe. Gure Ertzo ere hor daukazue preso. Nik ez zakiat zer kalte egin dautzuen gizagaizoak, ez eta ere, zer gatik, Madrileko hire jaun buruzagiek duten gizon horrentzat, holako beldurra.
- J.— Gaur arratseko, hemen gertatu guziak, argi eta garbi jakinen dira. Hortako naiz hunarat jina: “Irina zahitik berezteko eta ardia otsotik”. Nahi dut, ni hemendik urruntzean, muga hau utzi trebes diren guziak xuxendurik. Denen jujatzeko, sariztatzeko edo gatzigtatzeko, eskugain osoa badut. Nere jokabidea izanen da legezkoa, argia, fermua.
- G.— Deubruentxoa! Hi beraz, denetako on haiz: Gerla egiteko, erresuma gobernatzeko, auzien trenkatzeko... Ahantzi gabe Santo Christo salbatzeko eta garaño lanetako...
- J.— (*Hasarre gorrian*)- Zerria eta ustela, horiek dira merezi ditutzu bi konplimendu lañoenak. Larrua zilaturik, putzurat joaitea da, zu bezalakoak merezi duen zortea.
- G.— Errak to, nola behar hauku, hi, orai deitu? Generalisimo, Etselentisimo, Sumarisimo?... Zonbat “si” eta zonbat “no” dituk horien gainerat?
- J.— Trufa zaite nitaz, nahi duzun bezenbat. Bainan, ikusten duzu hil hori! Jakin-azu, orai beretik, gaur iluneko, betze holako bat izanen dela, muga huntan. Azken aintzina... Zure, bainan azkena... nere!
- G.— Zer haiz? Ihizirat joaitekoa?

- J.— Apur baiten buruan, Ertzo hunarat ekarriko baitugu estekaturik, ongi beha-zozu. Azken aldikotz ikusiko baituzu!
- G.— Gutu ezagutu diat, nere bizian, hire balioko auzi-jujatzalerik. Bertzek jujatu ondoan, ditek gaztigua neurtzen. Hik aldiz, gaztigua neurtu ondoan, duk jujatzen. Nere ohoreak hire talenduari!
- J.— Ba, eta jakin-azu, bazela hemen gaur, Ertzorekin jujatzekoa, zure eskualde hortako bertze gizon bat ere!
- G.— Ha ba?... Nor ote?...
- J.— Zu!
- G.— Ni? Hau berri pizkorra!
- J.— Zu, ba, zu! Segur baino segurago baigira, zu zirela terrorixta hil horren eta bertze zombaiten laguntzailea. Zorigaitzez, zuen gobernu ustelak ez du onhartu, zu, guri libratzeko, eskaini diogun tratua.
- G.— Beraz nahi zinuten xoria bipildu, bainan ez duzue bildu... Ahatik, gauza bat ez dio xuxen kausitzen
- J.— Zer?
- G.— Zera... Muga hunaindiko hirutarik bi, Ertzo eta ni, belzten gaitutzue. Nola uzten duzue bakean eta xuri, gurekin den matrona, hirugarren hori?
- J.— Hori ez delakotz hobendun.
- G.— Yes, harritzeko duk, hik ez jakitea, guk, hemen, denek zakiaguna.
- J.— Zer?
- G.— Matrona hori, astean behin, gau bat iragaiterak, joaiten dela hire eskualde hortarat!
- J.— Gau bat? Norat? Norekin?
- G.— Ez duk guri horren salatzea... Ez gaituk, gu, Matronaren aingeru begiraleak. Hori, hire ofizioa duk.

J.— Hee! Nola ari zira? Mintza zaite argi eta garbi.

G.— Ez adila, gaizoa, hola sutan jar! Eta, ez zakela xehetasunik galdu. Badakik berdin arras ongi, gatu horrek baduela bertze buztanik. (*Irri gaxto bat eginez, jalitzen da.*)

J.— (*Bakarrik errabian*)- Zintzurra moztuko niokek gizon horri. Hemen ez badezaket kausi, berdin, den tokirat joan-eta...

FRAILE.—(*Agertuz, bizi-bizia mintzo*)- Jeneral jauna!

J.— Zer da fraile-aita?

F.— Gauzak arras makur doatzi hemen gaindi eta, hola segituz, nahasmendu itsusienak piztuko dira.

J.— Zer derazazu?

F.— Badakizu nola gure radio-telebista eta kazetek, gaitzeko burunba dabilkaten, berria zabalduz, hemengo hil hau, terrorixta lanjeros bat zela.

J.— Ba badakit. Manua ukana dute, gisa hortarat joka ditene, gertakari huntaz baliatu nahi baitugu, gure kontrarioen belzteko.

F.— Ba, bainan, ote dakizu nor den terrorixta delako, hil hau?

J.— Dakitena da Oiartzuar bat dela, bere tratuen egiteko, mugaz gaindi usu zabilana.

F.— Bainan ote dakizu, mutil hori dela herrian, oroz estimatua eta nehorik ez diotela hitzik sinesten, terrorixta zela kondatzen duteneri?

J.— Eta gero? Zer zauken guri terrorixta izan zadien ala ez? Ez gira hunat jin, hil baten jujatzerat, bainan, heriotze hau baliatuz, propaganda gure alde muntatzerat!

F.— Eta Arrastatu duzun Ertzo hori! Propagandak dionaz, frantses terrorixta bat da, hil hunekin eskuz-esku zabilana. Zer diozu hortaz?

MATRONA.—(*Agertuz*)- Jauna, nahi nuke zurekin buruz-buru mintzatu.

J.— Zaude otoi beha apur bat!

M.—(*Ateratzen da... Ez da kontent*)

J.— Badakik arras ongi, Ertzo hori dela, burutik harrotua den gizagaizo bat. Manua dut horren hiltzerat kondenatzeko. Bainan ez dugu hilen!

F.— Zer ba!

J.— Segur gira, eskualde guzitarik jinen direla telegramak, kondenatu horren ez hiltzeko. Ez dugu beraz fuzilatuko, bainan betiko presondegirat kondenatuko. Hola, gobernuak ukanen du padara, munduari irakusteko, ez duela zonbaitek dioten bihotz gogorra eta badakiela atea zabaltzen barkamen-deieri.

F.— Bainan, hemengo jendeak ezagutzen ditu hila eta Ertzo. Eta beraz konturatuko da, horien inguruan egin propaganda guzia gezurrezkoa dela.

J.— Ba, bainan hemengo jendeak dakiena, hemen gelditzen da. Hemengo jendeak ez du, dakienaren urrun hedatzeko ahalik. Propaganda egiteko tresneriaketa indarra, guk dugu bakarrik, guk, gobernuak.

F.— Zu hola mintzo zira. Bainan uste duzia, hemengo jendea, ixilik eta geldirik egonen dela, gezurpean itoa? Hil horiek badituzte beren etxeokak, adixkide-ta ezagunak!

J.— Izanea dira batzu mugituko direnak. Bainan, poliza ez ote dugu hor, gure mutil, holakoen bentzutzeko? Eman dezagun ehunetik hamar mugitzen direla. Zer dezakete horiek, eskupeko ditugun hoinbertze polizgizonen kontra? Armez guri oldartu? Aski ditugu fusilatzea hamar, ehun, mila! Zer zauku guri? Hil gehiago eta etsai gutiago!

MATRONA.—(*Agertuz*) -Jauna, baitezpada nahi zintuzket mintzatu.

J.— Erran dautzut jada apur bat gohaitatzeko!



M.—(*Kexu, ateratzen da*)

F.— Zuk aipatu jokabide hortan, nun dira kontzientzia, egia, gizon-legea?

J.— Politika da gerla, fraile-apeza. Gerlan, bazterrerat utzi behar dira kontzientzia, egia eta gaineratekoak. Azkarrenak baitu gerla irabazten, ikusi behar duzu bakarrik, nola izanen ziren etsaia baino azkarrago. Bertzerik ez.

F.— Zu soldado bezala mintzo zira. Bainan, politika ez da gerla. Gizon eta apez bezala, nik, gauzak, arras bertzela ikusten ditut.

J.— Orroit zaite, zuek eta gu, elgarri, uztartuak girela. Gu erortzen bagira, zuek ere eroriko zireztela.

F.— Bainan hol'hola, ez ote gira jada eroriak?

J.— Gure ezpata hor duzue zaindari. Gubernuko diru eta ohoreak, zuen laguntzaile. Norat zoazte sustengu horiek guziak galduz geroz! Hor ikus!

F.— Apez egin nintzen, pobren eta indargaben, oroz gainetik, zerbitzatzeko. Eta, nere burua ikusten dut urrearen eta indarraren mutil. Nola libra presondegia huntarik! (*Ateratzen da*).

J.— (*Bakarrik*) -Hori ere hasia duda-mudaka! Gaurko apezek, sobera denbor galtzen dute beren buruarekin pentsaketan eta Jainkoaren etsaiekin solasketan! Zampak nahiago dituzte, eman baino, hartu! Gaixo ixtupak!

MATRONA.—(*Agertuz, Asaldatua da*)- Ha, ez da goizegi bakarrik baitzira!

J.— Zer gertatzen zautzu!

M.— Izigarriak egin ditut, Nere buruaz ahalge naiz... Eldu naiz, denak zuri aitortzerat!

J.— Zer ba!

M.— Atzo arratsean, frantses polizak arrastatu ninduen eta galdezka luze batzuetan erabili.

- J.— Eta gero!
- M.— Oro aitortu ditut... (*Bizi-bizia*) Bainan, aintzinetik denak bazakizkan.
- J.— Zer aitortu duzu?
- M.— Zera... Zurekin nola nabilan. Eta nola, astean behin, elgartzen giren.
- J.— (*Hasarre*) Zer! Hori salatzen ari izan zirea?
- M.— (*Erdi nigarrez*) Ho, barka zadazu! Hoinbertze nahasi naute beren galdekin! Hsteko, jada den denak bazakiten!
- J.— Salatu diozute, gaua elgarrekin iragaiten dugula?
- M.— Ba ba, dena... Bainan, aintzinetik oro bazakiten!
- J.— Ha ustelak !... Eta zuk, ez dakizu, ez dela polizari sekulan deus salatu behar?
- M.— Ba, bainan hoinbertze burtxoratu naute, nekatu, ikaratu !... Ez nakien gehiago nun nintzen.
- J.— Eta, bertzerik ere galdatu dautzutea?
- M.— Ba, terrorixta hau, nork eta nola hil duten?
- J.— Eta, hori ere salatu diozutea?
- M.— Ba.
- J.— Zuk, zer zinakien hil huntaz?
- M.— Den- dena banakien.
- J.— Den-dena?... Nola ez dautazu ba fitsik erran?
- M.— Ez naiz ausartatu.
- J.— Zer duzu! Fidantzi gehiago frantses poliza ustelan, ni baitan baino?
- M.— Ez... Badakizu ez dautzutala sekulan fitsik gordetzen!
- J.— Eta, zer gatik ba hau?

M.—(*Ixilik dago*)

J.— Terrorixta hau nork hil duela, diozute salatu?

M.— Karabinerok.

J.— Karabinerok?

M.— Ba, horrek dio eskutan ezarri paketa bat, eskatuz holako lekurat otoi ereman zezan. Paketa hortan, bonba bat zen. Bonba hori zartaturik, izan da hola puskatua.

J.— Eta zuk, nola dazkitzu xehetasun horiek?

M.—(*Ixilik*)

J.— Mintza zaitel!

M.— Nik errana nion, hil horrek, diru ainitz berekin ibiltzen zuela.

J.— Ha, orai denak konprenitzen ditut. Beraz, ixpiunak gainean nintuen. Eta orai, bildu naute beren saretarat.

M.— Ho, barka zadazu otoi! Ez nuke zurekin samartu nahi... Zurekin, lehen bezala nahi nuke izan.

J.— Bon... Orai, erraitekoak erranak ditugu! Ez gaiten bi oren hola egon! Engoitik ikusiak gaituzte! Zoazi hemendik! Gero erranen dautzut nun eta noiz elgar ikusi.

M.—(*Ateratzen da*).

J.— (*Bakarrik*) -Urdeak! Urde ustelak! Atera diozkatzue nahi ziniuzten guziak! Bildu duzue bazka, ni zikintzeko eta lehertzeko! Munta-azue, munta, kontra-propaganda. Bainan ez dik horrek xurituko zuen Ertzo. Asta-pullo hori!

FRAILE.—(*Agertuz, kazeta batzu eskutan*) -Kazeta batzu, frantses, aleman eta inglesak, ekartzen dauzkitzut, jeneral jauna. Zutaz eta hemen ideki behar den auziaz mintzo dira!

J.— Zer derasate?

F.— Gizon gazte hau, karabinerok hil duela. Krima hori egin duela diruaren gatik. Frantses matrona, zure amoranta dela. Hemengo

auzi hau, komedi bat hutsa dela. Auzi erresumetako radio-telebixtak ere mintzatu direla hemengo auziaz... Huna artikulu luze batzu... Zure fotoa, matronarena, karabinorena hor dauzkatzu.

J.— Beraz gerla... Gerla nahi dute! Gerla nahi balinbadute, ukanen dute.

F.— Presatua bainabila, etorri bezala, lasterka banoa. (*Ateratzen da*)

J.— (*Kazeteri so... Gaitzeko kexuan*) -Zerriak! Zerri zikinak... Jenden bizi zikintzale ustelak !... Ikusiko diogu nork joanen dituen azken tantoak. (*Karabinero deituz*) -Karabinero, zato hunaraino! (*Heldu zaio*) Errazu, Karabinero, irakurtu ditutzu gaurko kazetak?

KARABINERO.—Ez, jeneral jauna!

J.— Badakizu nor den hemengo krimaren egilea?

K.— Nik ez, jeneral jauna!

J.— Kazetek diote zu zirela hiltzalea...

K.— Gezurra hori!

J.— Matronak salatu du, berak lagundurik hil duzula mutil hau.

K.— Gezurra, Jeneral jauna.

J.— Ba, eta ere, hau hil duzula diruaren gatik.

K.— Gezurra!

J.— Egia dea kazetek diotena: Zure emazteaz bertzalde, baduzula bigarren bat eta harekin zernahi diru xahutzen duzula!

K.— Gezurra! Asteko, jeneral jauna, gure ofizioko eginbideak betez geroz, gure bizi berezian, nehork ez du sudur sartzerik.

J.— Hortan, zurekin ados nago. Ahatik, azken galde bat: zintzoki eginen dautzut eta nahi nuke zintzoki ihardets dezozun... Hitzemaiten dautzut zure errepusta ez dudala nehorri salatuko, ez eta sekulan zure kontra baliatuko. Beraz huna nere galdea:

zin egitea duzia, zure soldado ohorearen gainean, zure haurren buru gainean, gurutze sailduaren gainean... Zin egiten duzia, ez duzula zuk krima hau egin?

K.— Bai, zin egiten dut!

J.— Ongi, da. Ez nuen bertzerik espero zu ganik. Ahatik, beti orroit zaite, hitzak hitz direla. Sekulan, aditzen duzu, sekulan, torturatu edo hilik ere, ez zaitela alda zure solasetan. Zaude beti aitormen beretan.

K.— Hitzematen dautzut, jeneral jauna.

J.— Bon, orai itzultzen ahal zira zure etxolarat! (*Ateratzen da... Jenerala bakarrik*) Laket zaut aurkitzea, arropa bezain fermu, bere solasetan, egonen den gizon bat. Badakit gezurrean zin egin duela. Hobe... Hola, arrazoin bat gehiago ukanen baitu, bere hartan tink egoiteko.

Ba, egiazki merezi eta ukanen du bere medaila. Eta, gainerat, ohore andienekin. Datortzila, etsai propaganda-egile guziak. Nik ez dut ahorik idekiko. Horrekin mintza daitela!

GUARDA.—(*Agertuz*) -Hor haiz to, jenerala!

J.— Zer nahi duzu?

G.— Irriz heldu nauk, irriz huna zer gertatzen den. Ertzo jujatu behar omen baituzue eta Ertzo, frantsesa baituk, Frantziako gobernuak eskatu dik Espainiakoari, hemengo norbait izan dadien hor, Ertzoren alde mintzatzeko... Espainiako gobernuak, bere baietza eman dik... Eta, hortako nauk hemen, ofizialki, frantses abokat bezala, Ertzoren laguntzeko.

J.— Auzi huntan barne sartzea nahioko nuen edozoin frantses, bai eta zakur bat ere, zu baino... Bainan, manua hola denaz geroz, manua errespetatuko dut. Ahatik, ez baitut nahi zure zangoek zikin dezaten Espainiako lurra, auzia eginen dugu, hemen berean, muga hegian... Eta zu, mintzatuko zira, mugaz bertzaldetik.

- G.— Ondi duk gizagaizoa. Hola hobekiago ageri duk, nola zuen auziak diren komedia huts batzu.
- J.— (*Oihuz*)- Karabinero, ekarzkitzu hunarat Ertzo eta Pexeta !... (*Guardari*) Bereala hasiko dugu gure auzia. Ni, jartzen naiz. (*Jartzen da saski gainean*) Zu ere, jar zaite, nahi baduzu edo zaude xutik !... Zuhurrek ikus!
- G.— Nik ere, hik bezala, naiago diat jarririk (*Jartzen da bertze saskiaren gainean*) Jainkoari esker, gibel-aldea oraino sano baitiat.
- K.— Huna, Jeneral jauna, Ertzo eta Pexeta (*Ertzo estekatua da*)
- J.— Bon, hurbil zaizte biak hunarat! Legez ari gaiten, auzia ideki baino lehen, agertuko ditugu bakotxak gure titreak... (*Xutiturik*) Ni naiz El Etselentisimo Juzgador del Sumarisimo, Justizia Mejor de España, una, grande, libre. (*Jartzen da*).
- G.— (*Xutiturik*) -Eta ni naiz, El Kaporalisimo de Justizia Menor de la Republika de Frantzia, Liberté, Egalité, Fraternité (*Jartzen da*).
- J.— Bon, auzi idekia da. Ertzo jauna, huna zure kontrako akusamenduak. Hiru handi ditutzu eta bortz pasei ttipi. Bainan, ttipiak baztertuko ditugu eta hiru andiak bakarrik aipatuko.
- G.— Ez naiz hortan ados. Handiak agert eta ttipiak gorde, hori duzia ttipien errespetua?
- J.— Lehen akusamendua duzu “bandidismo”, mandilkeriazkoa, andere Pexetari egin diozun laidoaren gatik. Horrentzat merezi duzu hiltzea (*Pena de muerte*).
- G.— Bai, pexetako laidoarentzat!
- J.— Bigarren akusamendua duzu “terrorismo”, terrorixta izan zirelaket, bonba bat nahi baitzinuen ezarri muga-bidean. Horrentzat ere merezi duzu hiltzea (*Pena de muerte*)
- G.— Ohartarazten zaitut, Etselentisimo, zuk bonba hori aipatzen, karabinerok egin duela irrino bat.

- J.— Hirugarren akusamendua duzu, armadarentzat agertu duzun errespetu eskasia, (*Injuria a la Armada*) Karabinero huni eman baitiezkatu errepusta gaxtoak. Horrentzat merezi ditutzu berroita-hamar urte presondegi (*Cincuenta años de prisión mayor*)
- G.— Beraz, gaizo Ertzo, ukantzak esperantza!
- J.— Horra hiru akusamenduak. Gure auzia hasiko dugu lehenetik.
- G.— Barkatu, Etselentisimo, nik nahiago nuke auzia hasten baginu hirugarren akusamendutik
- J.— Zer gatik? Zer arrazoin duzu hortako?
- G.— Zeren-eta, zuen Justizia hobeki errespetatua litake, Ertzo, beroita-hamar urte presondegi?
- J.— Akusamenduen lerrokada ez dezakegu alda... Legea lege da.
- G.— Bertze xehetasun bat ere nahi nuke jakin.
- J.— Zer?
- G.— Akusatuak ukaiten baditu bi hil gaztigu, zer gertatuko da? Bietan fuoilatuko ote dute ala zer?
- J.— Horrek erran nahi du, akusamendu batengatik ez badute hiltzen, bertzearen gatik hil dezaketela!
- G.— Hori ere ez da ba xuxen, bi aldiz hiltzerat kondenatuak, bi aldiz merezi du fuzilatzea, eta ez behin bakarrik.
- J.— Huntan ere, legea lege da... Lot gaiten beraz lehen akusamendutik. Andere Pexeta, konda-azu gertatu dena. Mintza zaitte argi eta garbi eta ahalaz laburzki.
- G.— Anderea izana gatik.
- J.— Eskatzen dautzut, jauna, anderen errespetua.
- G.— Bai, Etselentisimo, eta partikulazki bakotxa-berearena!
- J.— Mintza zaitte, andere Pexeta.

PEXETA.—Ba, zera zen... ortziralea... Edo ez... larunbata naski... Ba hala zen.. Nere xuriket eguna baitzen.

G.—Ez andere Pexeta, asteartea zen.

P.—Segur zirea? Ni beti, egunekin galdua nabila.. Ahatik, segur naiz goiza zela!

G.—Ba, goizeko biak et'erdiak!

P.—Biak et'erdiak? Ez, ez... Iduzkia gora zen.

G.—Bai, eta itzala behera!

P.—Itzala behera? Jaun jujea, gizon hori, ni arras nahasten ari da...

J.—Aintzinat, andere Pexeta, aintzinat!

P.—Ba, Ertzo etorri zen nere komunetarat... Zera egin behar zuela.

G.—Zer "Zera"? Zer da "zera" hura?

P.—(*Hasarre*) -Denek egiten duguna... Zer nahi duzu izaitea?...

G.—Denek egiten duguna... bainan laburra ala luzea?...

P.—Nik dakita!

G.—Behar baiginuke jakin!

J.—Aintzinat, aintzinat, andere Pexeta.

P.—(*Abantxu nigarrez*) -Ba... zera... etorri zen Ertzo...

G.—Zonbat orenetan?

P.—(*Nigarrez hipaka*) -Jaun jujea, ni ez nintake hola mintza. Gizon hori, ixil-araz zazu! (*Mokanesa ezin arrapatuz ari da, begien xukatzeko*)

G.—Ez duzia mokanesik?... Nahi duzia nerea prest?

J.—Bon, aski, andere Pexeta... Zurea entzun dugu. Orai, mintza bedi Ertzo!

ERTZO.—Ni, ez naiz espainolez mintzatuko. Eskuaraz bakarrik... Gorputz bat bazen, hemen mugan, zazpi pusketan. Lau hemen



- eta hiru han... Nik nahi nintuen zazpi puskek elgarrekin ezarri...  
 Ez omen... Zazpi puska horien elgartu-nahia, gaxtakeria omen da... Eta gaxtakeria ere omen da, muga hau hemen dik kendu behar litakela, aipatzea... Horra jauna.
- J.— Bon, hemen Espainan baigira, orai errazkitzu espainolez, eskuaraz erran ditutzun guziak.
- E.— Ez jauna... Ni, Eskualduna naiz eta eskuaraz naiz bakarrik mintzatuko!
- J.— (*Hasarre*) -Zeer !... Baduzu kopeta !... Ahantzi ahal duzu nori mintxo ziren! Ordrea emaiten dautzut, espainolez mintzatzeko.
- E.— Ez jauna.. Ni Eskualduna naiz.
- J.— Mintzo zaite espainolez edo bereala preso sartzen zaitut...
- E.— Eskuaraz naiz bakarrik mintzatuko...
- J.— (*Hasarre gorrian*)- Karabinero, eremazu bereala gizon hau presondegirat. Han ezarriko duzu gela ilunean, ur eta ogi xoilekin. (*Karabinerok joaiten du Ertzo*). Eta, gertakizun hunen gaztigu, ukanen ditutzu bi urte presondegi, bertzen gainerat.
- G.— Nik ez dut, Etselentisimo, onhartzen gaztigu hori, eta diot, auzi hau ez dela legezkoa. Gaurko egunean, den nazione gibelatu arruntenetan, onhartzen dute, akusatua mintza dadien bere etxe eta herrikoen hizkuntzan. Nola, ez, zuen Espainia hortan?
- J.— Hori, gure ikustekoa da eta ez bertzena. Eta orai, jarraik gaiten gure auziari... Zerbait balinbaduzu oraino erraiteko Ertzoren alde, mintza-zaite!
- G.— Bai, Etselentisimo, hau da nik onhartzen ez dudana. Zer gatik presuna batek pagatu behar duen komunerat joaiteko! Xinan ete bertze asko erresumetan, komunetarat joailea da ordaintzen, han uzten dituen aberastasunen gatik. Ez dakizua gizonen inbeharrak direla ongailu kantak? Hetan aurki ditazkela otzigena, hidrogena, urea, hazida urika eta bertze holako zonbait?

- J.— Bai, eta alkola ere, zu komunetarat joaiten zirelarik
- G.— Mikroba zifilitika aldiz, zu joaiten zirelarik.
- J.— (*Xutitua, errabian*) -Zer erran duzu?... Zer!
- P.— (Bien artean sarturik) Otoi, jaunak, otoi!
- G.— Ez dut gaztakeriarik atera... Inbidoari "iduki" bota baizik.  
(*Eztitzen dira*)
- J.— Bon, mintza gaiten orai, bigarren akusamenduaz. Ertzok, muga hau nahi du hemendik kendu.
- G.— Bai, eta ni hortan, Ertzoren alde naiz.
- J.— Jakin-azu behin betikotz, Espainieko lurra ez dela saltzeko... Lur hau sakratua baita. Honek ditu hazi: Karlos Kinto eta Cisneros, Isabel la Katolika, Felipe Secundo eta Franco.
- G.— Bai eta Frantziako lurra ere sakratua da: Honek baititu hazi Charlemagne eta Jeanne d'Arc, Louis XIV, Napoleon eta De Gaulle.
- J.— Harritua nago, muga kentzearen alde nola izan zintazken zu, mugazaina, zure ogia muga huntarik jaten duzuna.
- G.— Hola jokatu, ez naiz batere nere buruari harrika ari, baina nere buruaren alde.
- J.— Nolaz hori?
- G.— Zeren-eta, ez badagu laster, onez-onean eta legez, muga hau husten, populuak hemendik kasatuko baigaitu, gibel aldean ostiko on batzu emanek. Ez duzia senditzen nola populuak zabaltzen ari den gure kontra, herra eta kexamendua?
- J.— Populua ba... Populua edo zakurra berdintsu dira. Irakuts makila eta, tete zaharra bezala, populua hor izanen duzu herrestan, zure zangoetan.
- G.— Ba, zure makilak, behin izituko du populua. Bietan ere ba. Baina kasu hirugarren aldiari!

- J.— Ostikoen mentura biharkoa dugu. Gaur gertatzen denari beha diezogun. Ez ahal ditutzu onhartzen hemen ezarri duten edo ezarri zituzten bonbak?
- G.— Ba, bainan nor da bonben ezartzalea. Ez dautzia holakorik salatu zure matronak?
- J.— (*Errabian*) -“Nere” matronak !! Zer gatik “nere” ah... Zu ere pozoinatu zituztea zuen alderdiko telebixt-kazeta ustelek?
- G.— Errazu nahi duzuna, bainan aitor-azu, matronak, zure besotan pisatzen duela, behi zahar batek bezenbat.
- J.— (*Harras errotua*)... Zeer !... Bauka kopeta, hi, apo madarikatua! Nik, hi eta frantses arraza guzia, ezar nezazkek, su-mendiak diren leku desertu batean; eta, han utz nezazkek, jan edanik gabe. Elgarri har ditela ausikika, zakur errabiatuak bezala. Eta, orok, leher egin dezatela!
- G.— Eta hola konplituia izanen duk hire Justizia Major, sumarisima!
- J.— (*Moztuz*)- Bon, auzia bururatua dz... Andere Pexeta, libro zira... (*Kanporat abiatzen da*)
- G.— Barkatu, bainen, hi jeneral gizagaizoa, zer gaztigu ematen diok Ertzori?
- J.— (*Ateratzen, deus-ez bat balitz bezala*) -Bi aldiz hiltzerat kondenatua eta berroita-amabi urte presondegi... (*Gordetzen da*)
- G.— (*Gibeletik Jeneralari*) -Neurri ona... Neurri ona... (*Bakarrik*) Alimale basa... Holakoak, etxean sartzerat uztea errexago da, ondoko egunetan handik kasatzea baino.  
(*Saski bat hartzen du eta, ixil-ixilik, lotzen da hura betetzen, bi metetako gorputz-puskak elgartuz!*)

## O I H A L A